

ANALISIA



Kontzertismoa, beste behin



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: EUSKO JAURLARITZA / IREKIA

140 urte bete dira Kontzertu Ekonomikoa sortu zela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat. Euskal erakundeek garrantzi handiz ospatu dute teoriarik gabeko emaitza dena, foruen abolizioaren ondoren, gure burujabetzaren azken hondar gisa hartu izan da zerga sistema berezia.

Bilboko Arriaga antzokian mila lagun inguru bildu ziren joan den astean, lehendakaria, diputatu nagusiak, alderdi guztietako ordezkariak eta patronaleko buruak barne, ekitaldi solemnean. Era berean, ETB2n *Por derecho propio* dokumentala estreinatu zuten, eta tertuliak eta hitzaldiak errenkadan datoz "egungo autogobernuaren oinarria" defendatzeko.

Arrazoa? Kontzertu Ekonomikoa eraso dute Madrildik. Zehazki, inkestetan gora doan Ciudadanosek pribilegioa dela argudiatu du: "Gainerako espainiarrek ordaintzen dugu *cuponazo*-a", esan zuen Albert Riverak Espainiako Kongresuan kupoari ezetz esateko. Baina ez gaude gauza berri baten aurrean: "Ez dago ezberdintasun handirik XX. mende hasierako eta gaur egungo kritiken artean", azaldu dio *Berria*-ri Mikel Erkoreka EHUren ekonomi itunaren agiritegiko ikerlariak; ezin ahaztuko ditugu 1893ko *Gamazada* bezalako gertaerak.

Gatazka edo gerra larriren bat tartean izan den bakoitzean jarri izan da auzitan euskal egitura fiskala. Agian, hori jakinda hartu diezaiokegu neurria urriaren 1ean gertatutakoari? Beste behin *casus belli* forala hartu da Espainiarekiko harremana definitzeko jokaleku; ez dezagun aldebikotasun eta *kontzertismoaren* gaineratik fokua desbideratu beste gauza batzuetan, adibidez zerbitzu publikoei zuzenean eragiten dien gastu arauan -EAJren babesarekin Madrilen onartua-, edo defizitari eta zorrari muga jarri dioten legetan; finantza autonomia Ibex-35aren mesedetara kateatzeko ez da zertan kontzertua ukitu behar.

Hori da gure burujabetza soziala: nahikoa da Konstituzio Auzitegi bat doako osasun arreta bermatzen duen legea bertan behera uzteko Nafarroan, edo frackingaren kontrakoa ezeztatzeko EAEn.

Jendea ez baina gazteluak, jauregiak, militarrek eta agintariak ageri dira ETBren dokumentalean. Eta martxoaren 3a baino bi egun lehenago, Rodolfo Martín Villa ikusi behar izan dugu gure telebista publikoan, besteak beste Gasteizko 1976ko gertaerengatik frankismoaren krimenen kontrako kereilan auzipetuta dagoen ministro ohia. Zer pentsatua ematen du halako pertsona bati entzuteak Kontzertu Ekonomikoaren negoziaketak ez ziola "buruko min handienteko bat sortu".

EKONOMIAREN TALAIAN

Emakumeen borroka luze eta gogorra



Juan Mari Arregi

Emakumeen borroka, gizonen esku-bide berak izan eta berdintasunezko jendarte baten alde, ez da gaur egungoa. Erdi Arotik emakumeak saiatu dira gizonen esplotaziotik libre izaten. XIV. mendeko Europako nekazal matxinadak aipa ditzakegu, edo XVII. mendetik XIX.era Iparramerikan eta Ingalaterran zabaldu ziren ehungintzako grebak -langileak 20 urterekin hiltzen ziren lan baldintza txarrengatik-. Ezin ahaztu Frantziako emakume komuneroak, edo zigarrarak, pospologileak, zirgalaria eta espartingileak, Euskal Herrian, Katalunian nahiz Andaluzian. Eta berrikitan Bizkaiko zahar-etxeetako greba eredugarria izan dugu. Emakumeek borroka luze eta gogorra mantendu dute. Ehunka urte geroago, behin-behineko hobekuntza txiki batzuk izanik ere, esplotazioak eta desorekak irauten du.

Soldata arrakala izugarria da: gizonek batez beste 5.982 euro gehiago irabazten dute emakumeek baino -urtean 25.727 euro, 19.744 euroren aldean-. Arrakala handitu egiten da jubilazioagatik pentsioen kasuan: emakumeek hilean 742 euro jasotzen dute batez beste, gizonek aldiz 1.197. Datu politiko bat: Espainiako Kongresuan 350 diputatutik soilik 138 dira emakumeak.

Martxoaren 8an greba eta mobilizazioek egoera injustu hori ikusaraziko dute mundu osoan. Diskriminazioarekin hautsiko duten politikak behar dira; mendetasun eta esplotazio sexualarekin amaitu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da gobernuetan emakume militanteak eta euren eskubideak defendatuko dituztenek -ez kapitalismo patriarkalaren zerbitzura dauden aldiak Thatcher edo Lagardeek- ordezkariak zabalagoa izatea. Eta gizonok, politikariak zein ez, emakumeen eskubideen aldeko militante eta aktibista izan gaitezten.